

Tanta boletoa

Aurtengo Kilometroak jaia Azpeitiko Ikasberri ikastolari dagokio antolatzea. [Informazio gehiago...](#)

Bestalde, gogorarazten dugu, familia bakoitzeko ikasle zaharrenari gaur banatuko diogula Tanta txartel bat. Norbaitek boleto gehiago nahiko balitu, usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz eska dezake.



Ikastolen VII. Biltzarra; Biharko Ikastolak hausnarketa prozesua

Ekainaren 22an Iruñean ospatuko den Ikastolen VII. Biltzarra dela eta, hausnarketa prozesuan gara Euskal Herri osoko ikastoletan.

Horrela, eskualdekako bilerak egiten ari gara ikastoletako komunitate osoarekin. Martxoaren 5ean Orioko Ikastolan arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara egingo dugu gure eskualdeko bilera eta bertan parte hartzera gonbidatuta zaudete Udarregi ikastolako guraso guztiok. Animatu gurekin Biharko Ikastolei laguntzera!

bihar

Jangelaz-zerbitzua

Martxoaren 22an eguerdian DBH, LH eta HH 3-6 urtekoen eskolak 12:30ean amaituko direnez, jangelako bazkaldarrak **etxera bakarrik** joatea nahi izanez gero, **baimena** usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz eman beharko da martxoaren 8a baino lehen.

Bestalde, **jangelako zerbitzua erabili behar ez badute**, martxoaren 8rako usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz **jakinarazi** behar dutela.

Azkenik, hona hemen martxoko menuak:

- 3 - 16 urte. [Menu arrunta](#)
- 3 - 16 urte. [Intolerantziadun menuak](#)



Martxoak 8

Martxoaren 8ko ospakizunak direla eta, egun horretan ikasle guztiak zerbait morea jantzita edo apaingarriren bat ekartzera gonbidatu nahi ditugu.




Telefono mugikorrei eta smartwatchei buruzko arautegia

Azken urteetan ikasleak ikastolara ekartzen dituzten Smartwatchekin edo erloju adimendunekin, egunerokotasunean arazoak izaten ari gara. Arazo horiek, aipaturiko gailu horiek dituzten jolas, kamera eta aplikazio desberdinek sortzen dizkigute.

Bestalde, gure ikasleen adina kontuan hartuta, ulargarria da gailu horien baliabide ugariak ongi kudeatzeko gai ez izatea.

Ondorioz, gai horren inguruan ikastolak duen arautegia bidaltzen dizuegu.



- **Debekatuta** dago telefono mugikorren eta smartwatchen erabilpena ikastolako ordutegian, jangela eta zaintza barne.
- Gailua ezingo dute soinean eraman, motxilan gordeta eraman beharko dute.
- Ikastola ordutan itzalita edukiko da.
- Irteeretan: egun edo gaua pasatzeko irteeretan, telefono edo smartwatchen erabilpena ikastolan arautzen den berbera da.
- Aipaturiko arauak hautsiz gero (ikastolan edo irteeretan), lehenengo aldian ikasleari gailua kendu egingo zaio, gurasoei deitu eta gailua gurasoei itzuliko zaie.

DBH4ko kamiseta eta jertseen salmenta

DBH4ko ikasleek ikasbidairako dirua lor dezaten jertseak eta kamisetak sortu eta salduko dituzte. Neurri desberdinak egongo dira aukeran, helduenak eta haurrenak.

PREZIOAK:

- Jertseak:

Haurrak (7/8, 9/10, 11/12...): 15 €

Helduak (XS, S, M, L, XL, XXL): 20 €

- Kamisetak:

Haurrak (7/8, 9/10, 11/12...): 10 €

Helduak (XS, S, M, L, XL): 10 €



Eskaerak egiteko [inprimaki hau](#) bete behar duzue. Eskaria eskaera kopuruaren arabera egingo da, beraz, **martxoaren 4a** aurretik abisatzea eskertuko genuke inor kamiseta edo jertserik gabe gera ez dadin.

Animatu zaitzete!

Azoka solidarioa

Lh6-ko ikasleek, **martxoak 11tik 15era** AZOKA SOLIDARIO bat egingo dute. Azokaren helburua, AEKri laguntzea da, korrikako kilometro bat erosiz. Arratsaldean izango da azoka, **16:15-16:45** bitartean. Agerialdeko jolaslekuan izango da. Horretarako, korrikako produktuak salduko ditugu, horrez gain, tortila eta bizkotxoak ere egongo dira salgai.



ERRIGORA, eutsi gureari!

ERRIGORA ekimenak, auzolanean, Nafarroa hegoaldeko nekazaritza indartu asmo du, horretarako, eremu horretakoak propio diren produktuak Euskal Herriko plazan jarritz. Aldi berean "zona no vascofona" izendatuko euskalgintzari ekarpena egin nahian bultzada ekonomikoa ematea ere badu helburu. Horretarako, produktu ezberdinak daude salmentan.



Eskaera ONLINE egin beharko da. Beraz sartu www.errigora.eus web orrira eta egin eskaera **martxoaren 13a** baino lehen. Bertan azalduko da eskaera egiteko bidea. Eskaerak ikastolan jasoko dira eta **banaketa maiatzaren 21ean eta 22an** egingo da.

Zinea

Martxoaren 3an 17:00etan Sutegin haurrentzako zinea: "Ilargirantz" izango da.

[Informazio gehiago...](#)



HAUR-HEZKUNTZA

Ipuin kontaketa

Martxoaren 4an, astelehena, 18:00etan, Sutegi Liburutegian, IPUIN KONTAKETA eskainiko da HHko 4ko eta 5eko haurrentzat; kontalaria: Amaia Elizagoien, *Ameli*. Sarrera irekia, aforoa bete arte.

[Informazio gehiago...](#)



LEHEN HEZKUNTZA

Irteera LH5

LH5. mailako ikasleok, **martxoaren 6an**, asteazkena, Pagoetara, irteera egingo dugu **ekosistemak** gaia lantzeko. Egun osoko irteera denez, ikasleek hamaiketako, bazkaria eta ura eraman beharko dituzue.



DBH

DBH eta gero zer?

Urtero bezala, ikasturte honetan ere, **DBH 4ko ORIENTAZIO BILERAK** egingo ditugu.

Antolaketa lanetan laguntzeko asmoz, DBH bukatu ondoren egin daitezkeen **ikasketa eta lanbide irtenbideei** buruzko bileren egutegia helarazten dizuegu. Bilera guztiak DBHko eraikinean izango dira.



DATA	ORDUA	GAIA
Martxoaren 11 (astelehena)	❖ 17:00etan (euskaraz eta gazteleraz)	➤ DBH bukatu eta ondoren egin daitezkeen ikasketa edo bestelako aukera desberdinei buruzko informazio orokorra.
Martxoaren 12a (asteartea)	❖ 17:00etan (euskaraz eta gazteleraz)	➤ OTEITZA (Zarautz) (Batxilergoak eta Lanbide Heziketako zikloak)
Martxoaren 13a (asteazkena)		Ez da aurkezpenik izango
Martxoaren 14a (osteguna)	❖ 17:00etan (euskaraz eta gazteleraz) ❖ 18:00etan (euskaraz eta gazteleraz)	➤ LASARTEKO Institutua (Batxilergoak) ➤ ZUBIETAko Lanbide Heziketa Zikloak *Monika

Hemen duzue [informazio orokorra](#) eta [parametroen taula](#).